elkarberri 74

III. Estatu Mailako Fisioterapia Jardunaldiak Lehen Mailako Arretan

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

2022ko apirila - ekaina / Doako alea

Lege-Gordailua: BI-945-05 - ISSN 2444-4065

Fisioterapiaren Munduko Eguna

“Goiko Gorputz-Adarren Artrosia”

iraila 10

Online jardunaldia

Informazio gehiago

diamundialfisioterapiacofpv.com



Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

Iban Arrien
EFEO-ko presidetea

editoriala

Presidentearen Aurkezpena eta Ongietorria

Elkargokide eta lankide agurgarriak:

Poz handia ematen dit aldizkariaren zenbaki hau zuei aurkezteak, zuen etxe profesionala den honetara ongietorri beroa egiteko eta gure aurkezpen ofizialaren berri emateko.

Badakizue zuekin guztiokin dugun konpromisoa berritu dugula duela gutxi, eta berriro heldu diogula erakunde hau gidatzeko erronkari, profesional aritu bikainak ondoan hartuta, gure lanbidea hobetzen laguntzen saiatzeko ilusio handienarekin.

Elkargoari dagokionez, oso erakunde garrantzitsua gara kudeaketa-sanitarioaren esparruan, estrategiak eta lankidetza proiektuak lotzen baititugu; Lurraldeko eta estatuko agintaritza eskudunak uztartzen dituen soka eta erregulazio profesionalerako ezinbesteko lanabesa.

Gure irudi profesionalak eta elkargoarenak oso indartsu dirau, azkar erantzuten dugu, informazio asko ematen dugu, eta, batez ere, eta garrantzitsuena dena, zaintza eskaintzen dugu, babesa, zuhurtzia, konfiantza, ziurtasuna, eta Euskadiko elkargokide guztien interesak zaindu eta egoki kudeatzeko bermea.

Agenda eta bide-orri berria egiteko lanean ari gara eta euskal fisioterapeuta guztien iritzia jaso nahi dugu. Hori dela-eta, entzuketa aktiboko prozesua irekitzera goaz, zuen iritzien nondik-norakoak jasotzeko, zer behar dituzuen hautemateko, zer ardura, zer iritzi, zein diren egungo eta etorkizuneko erronkak; hau da, jarraitu beharreko bide berria osatzeko.

Egia da koronabirusaren pandemiak azkar gertatzen ari diren aldaketa asko bizkortu egin dituela, eta uste dut legealdia hastera doan honetan, une egokia dela aldaketa horiei buruz gogoeta egiteko, pentsatu eta ondo aztertzeko. Etorkizuneko fisioterapia eraikitzeko giltza zuek guztiok partaide egitean dago.

Entzuketa aktiboko prozesu honen bidez, XXI. mendeko fisioterapiaren eta Euskadiko fisioterapeuten etorkizuna eraikitzeko oinarriak ezarri nahi ditugu. Gogoeta sakona egiten jarraitu behar dugu eta horretan ere ari gara.

Bete berri ditugun 21 urteak ekarri nahi ditugu gogora, bai eta egin diren hainbat hobekuntza ere: kanpo zein barneko komunikazioari dagozkien prozesuen hobekuntza, digitalizazioa, zerbitzu berriak, lankidetza hitzarmenak, etab.

Elkargoak lan jarraitua egin du urte hauetan guztietan eta hainbat mugarri profesional erdietsi ditu, etab. Horrek aukera ematen die elkargokideei ez bakarrik indarrean dagoen araudiari buruzko informazio esanguratsu eta eguneratua izateko, edo

ZURE SEGURTASUNA, GURE KONPROMISUA

Lasai egon ahal zara: Fisioterapia Zentro batean sartzen zara

HEMEN: COfpVID pLANa

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

gai anitzetan aholkularitza espezializatua izateko, baita edozein eratako jarduketa administratiboak egiteko ere. Horrek guztiak aukera ematen digu fisioterapeutoi lehiakorragoak izateko eta segurtasun berme guztiarekin lan egiteko.

Elkargoa eraldaketa prozesuan dago zuen behar eta eskaerei geroz eta hobeto erantzuteko, geroz eta hurbilagoa eta pertsonalizatuagoa izango den arreta emateko. Gure helburua da zuek merezi bezalako kalitatez, hurbiltasunez, ziurtasunez eta profesionaltasunez zerbitzatzen jarraitzea. Hori da gure konpromiso nagusia. Elkargoa zuekin batera osatzen da, zuen kezka, iradokizun eta gomendioekin. Beti dago zer hobetu, eta helburu horrekin ari gara, hobetzen jarraitzeko asmoz. Lan egingo dugu gauzak hobeto egiteko, egindako akatsak onartuz eta arduraz jokatuz.

Aldi berri honetan ematen ditugun zerbitzuak sendotzen saiatuko gara eta ahal bada areagotu, jarduketa berriak eginda eta erakundea profesionalizatzen jarraitzen ere saiatuko gara. Gobernu-batzar berri honek ahalik eta gehien egingo du gure lanbidea hobetzeko, eta horretarako zuen laguntza beharko dugu etorkizuneko jarduketetan, elkarrekin osatzen dugun proiektu hau sendotu eta aberasteko zuen ekarpenek beste lorpen batzuk erdiesten lagunduko digute.

Batzarra uztera doazen kideek Elkargoaren gidari izan diren aldian egin duten lana eta izan duten dedikazioa aitortu eta eskertu ere egin nahi dugu. Eskerrik asko guztioi.

Gobernu-batzar berri honek ikaragarri eskertzen dizue horretan jarri duzuen konfiantza, eta ilusio eta apaltasun osoz heltzen die ardura eta konpromiso berriei.

Agur bero bat nire aldetik

aurkibidea

3 editoriala	**6** berriak	**24** in memorian
24 aholkularitza juridikoa	**26** iragarkiak	**30** elkargokide

Lehendakaritza eta Zuzendaritza
Iban Arrien Celaya
Coordinación Koordinazioa:
Comisión Comunicación, Publicidad y Protocolo
Gauzatzea eta Maketazioa
J&J Creativos
Argazkigintza
ORO
Argitalpena
Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Hiruhilabeteko argitalpena
220

Ale honetan argitaratutako edukien kopia osoa edo partziala egitea debekatuta dago, EFEO-ko Gobernu Batzordeko idatzizko berariazko baimena eduki gabe.
Elkarberria eta EFEOa ez dira iragarkien eduki eta irudien arduradunak egiten, ezta argitaratutako artikuluen edukiena, beraien egileen iritzia delako.

Elkargokieei emateko dohainezko alea

III. Estatu Mailako Fisioterapia Jardunaldiak Lehen Mailako Arretan

Fisioterapiak Lehen Mailako Arretarako sarbide zuzena eskatzen du

Lehen Mailako Arretako Fisioterapia Osasun Sistemak gainditu gabe duen irakasgaia da. Egungo pandemiaren testuinguruan gero eta nabariagoa den defizita eta beharra da.

Espainian, 1991n integratu zen diziplina hori arretaren esparru horretan. Orduan, fisioterapeuten Lehen mailako Arretari dagozkion jarduerak antolatu ziren (4/91 Zirkularra, 1991ko otsailaren 25ekoa). Hasierako prozesu horren ondorioz, Lehen Mailako Arretako fisioterapeutak Estatu osoan hedatu ziren, salbu eta une hartan osasun-eskumenak besterenduta zituzten eta zirkular hori beren gain hartu nahi izan ez zuten erkidegoetan. Ondorioz, lurraldeen arteko desoreka eta desberdintasun handiak sortu ziren kolektiboa txertatzeari eta populazio-ratioari dagokienez.

Fisioterapiaren egoera Euskadiko Lehen Mailako Arretan

Gaur egun, Euskadin 18 profesional baino ez daude Lehen Mailako Arretan, 2.268.844 biztanleko populazioarentzat. Espainian, eremuaren arabera, proportzioa honako hau da: 1 fisioterapeuta 16.000-30.000 biztanleko. (Iturria: Osasun Ministerioa).

Errealitate horrek agerian uzten du kopuru horiek oso urruti daudela Fisioterapiaren Mundu Mailako Konferentziaren nazioarteko gomendiotik, zeinak zenbatesten duen ratio egokia dela 1 fisioterapeuta 1.400 biztanleko. Era berean, OMEren `Rehabilitation 2030´ekimenak osasun sistemak Fisioterapia zerbitzuekin sendotu behar direla azpimarratzen du. Zerbitzu horiek populazio osoarentzat eta bizitzako etapa guztietan egon behar dute eskuragarri.

Maila orokorrean, 3 pertsonatik 1ek errehabilitazioaren bidez hobetu daitekeen osasun-baldintza bat du. Maiz, Fisioterapia ez da lehenesten eta gutxiegi erabiltzen da. Ondorioz, ezinbestekoa da Lehen Mailako Arretan fisioterapeutak egotea, arreta emateaz gain, osasun komunitarioa eta gaixotasunaren lehen mailako prebentzioa sustatzen laguntzeko.

Hezur eta muskuluen afekzioek eragiten dituzte familia-medikuei egiten zaizkien kontsulten % 30, eta azterlanek erakusten dute Lehen Mailako Arretaren fisioterapeutarenera zuzenean jotzeak patologia horien % 85 sendatu ahalko lituzkeela. Ondorioz, zeharkako kostuak (hala nola laneko bajak eta ezintasunagatiko pentsioak) murriztu eta osagaien preskripzio eta kontsumoa zuzenean aurreztuko lirateke.

Gasteizko aurre-jardunaldiko talde-dinamika

Populazioa gero eta gehiago zahartzen ari da eta gero eta pertsona gehiagok dituzte gaixotasun kronikoak edo patologia anitzak; hortaz, Fisioterapiak eta populazio klinikoaren funtzionaltasuna hobetzen laguntzeak

Gasteizko aurre-jardunaldiko parte-hartzaileak

Paula Areso Donostiako aurre-jardunaldiko hitzaldian

XXI. mendeko osasun-sistemetarako lehentasuntzat jotzen dute fisioterapeutarenera jo ahal izatea.

Aurreko guztia aintzat hartuta, Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak (EFEO) eta Fisioterapeuten Espainiako Elkarteak (FEE) III. Estatu Mailako Fisioterapia Jardunaldiak Lehen Mailako Arretan antolatu zuten, Bilbon, maiatzaren 7an eta 8an. Bi aurre-jardunaldi ere egin ziren: maiatzaren 19an Gasteizen eta apirilaren 2an Donostian.

GASTEIZKO AURRE-JARDUNALDIA "ESPERIENTZIAK GEHITZEN, INGURUA EZAGUTZEKO"

Lehenengo aurre-jardunaldian, profesionalek lehenengo hartu-emana izan zuten Lehen Milako Arretako Fisioterapiari buruz. Bertan, honako hitzaldi hauetara bertaratu ahal izan ziren: Inma Vinuesaren (SEPAReko arnas-fisioterapia arloko Batzorde Betearazleko kidea eta 2021eko abenduaz geroztik Tenerifeko Taraconteko Osasun Zentroko Lehen Mailako Arretaren Gerentzian lanean) "27 urtez arreta espezializatuan aritu ondoren, lehen mailako arretan lurreratzen: eta zerbitzuetan oinarritutako kudeaketatik zeharkako unitateetara igaroko bagina?", eta Sergei Uriarteren eta Aloña Garmendiaren (Arabako ESIko fisioterapeutak) "Lehen mailako arretaren ibilbidea Euskal Autonomia Erkidegoan proiektatzen".

DONOSTIAKO AURRE-JARDUNALDIA "SAREAK SORTZEN ETA JENDEA EZAGUTZEN: AUKERAK ZABALTZEN"

Bigarren eta azken jardunaldia Deustuko Unibertsitatean egin zen, Donostian, eta hitzaldi hauek eman ziren: Aintzane Sarasuaren (Basurtuko ESIko fisioterapeuta) "Lehenengo aurre-jardunaldiko 1. talde-dinamikan Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Mailako Arretako Fisioterapiaren aurrean hautemandako oztopoetara hurbiltzea"; Carmen Secadesen (Fisioterapeuta. Kantabriako Osasun Zerbitzuko Lehen Mailako Arretako Kudeatzailetzako Prestakuntza, Ikerketa eta Kalitate Unitatea) "Fisioterapia Kantabrian. Elkarrekin bidea egiten"; Paula Aresoren (Sacyl, Gaztela eta Leoneko Osasun Zerbitzuko Lehen Mailako Arretako fisioterapeuta) "Gaztela eta Leon: Lehen Mailako Arretako osagai sekretua"; eta Tirso Docamporen (Sergas, Galiziako Osasun Zerbitzuko gaietarako Sogafi, Fisioterapeuten Galiziako Elkarteko kidea) "Zientzia-elkarteak: Talentua bildu, batu eta kudeatzeko modu bat".

Carmen Secades eta Aintzane Sarasua Donostiako aurre-jardunaldiko hausnarketetan

Hitzaldi horiek guztiek Euskadin Lehen Mailako Arretako Fisioterapia garatzeko esparrua osatu zuten, beste autonomia-erkidego batzuetatik ikasi ahal izan baikenuen.

JARDUNALDIAK

Maiatzaren 7an, Bilboko EHUren Paraninfoan, hasi ziren III. Estatu Mailako Fisioterapia Jardunaldiak Lehen Mailako Arretan izeneko jardunaldiak. Honako hauek osatu zuten inaugurazio-mahaia: Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburu Gotzone Sagardui andreak, EFEOko presidente Iban Arrien jaunak, FEEko presidente Fernando Ramos jaunak, eta Farmazialarien Elkargoen Kontseilu Nagusiko presidente Gustavo Paseiro jaunak.

Sagardui andreak bere hitzaldian adierazi zuen Bizkaian eta Gipuzkoan fisioterapeutentzako lanpostu berriak sortu direla Lehen Mailako Arretan, eta lanpostu horiek Araban dauden 4 lanpostuei gehitu zaizkie.

Gotzone Sagardui Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua, bere hitzaldian

Bestalde, inaugurazio-mahaiko gainerako kideek Fisioterapia Lehen Mailako Arretan sartzeak dituen abantailak azaldu zituzten. Abantaila horiek nabarmenak dira beste autonomia-erkidego batzuetan.

Inaugurazio-hitzaldien ondoren, lehenengo lan-mahaia aurkeztu zen: “Baliabideen Kudeaketa eta Errentagarritasun Hobea Lortzeko Talde-lana”.

Mahai honetako lehenengo hitzaldia, “Lehen Mailako Arreta eta Osasun Komunitarioko Esparru Estrategikoa. Helburuak, Garapena, Fisioterapiaren Egoera”, FEEko Lehen Mailako Arretako eta Arreta Komunitarioko filialeko presidente Montserrat Inglések eman zuen. Osasun-sistemaren egitura eta, hedaduraz, haren antolamendua eta kudeaketa berritzeko beharraz hitz egin zigun; izan ere, aldez aurretik berritzerik egin nahi ez izanaren ondorioz, zalantzan jarri da osasun-sistema publikoaren kaudimena eta erreskate-proposamenei buruz hitz egiten da.

Montserrat Inglés

Carmen Secades, bere hitzaldian

Jarraian, Kantabriako Lehen Mailako Arretako fisioterapeuta Carmen Secadesek Lehen Mailako Arretan taldeen garrantziaz eta Fisioterapeutak talde horretan egiten duen ekarpenaz hitz egin zigun bere "Fisioterapeutaren Zeregina Lehen Mailako Arretako Taldearen Barruan" hitzaldian. Carmen Secadesek bere taldeko kide Maribel Priederekin eta Elena Benitorekin batera eman zuen hitzaldia.}

Taldeei buruz hitz egin ondoren, Saude Tenorio Zentroko (Servizo Galego de Saúde) Lehen mailako Arretako Fisioterapiaren Unitateko fisioterapeuta Guillermo Bilbaok emandako "Lehen Mailako Arretako Fisioterapiako Esku Hartzeen Kostua/Eraginkortasuna Erlazioa" hitzaldian, kostuaz/eraginkortasunaz hitz egiteko unea iritsi zen.

Hitzaldi interesgarri horien ostean atsedenaldia egin zen; tarte horretan, bertaratuek inpresioak partekatu eta Jardunaldietako komunikazio onena ikusi eta bozkatu ahal izan zuten.

Atsedenaldiaren ondoren, "Fisioterapia sustatzea Lehen Mailako Arretan. Hobekuntzarako bermea" hitzaldia eskaini zuen Verónica Casadok (Gaztela eta Leongo Osasuneko kontseilari ohia eta Familia eta Komunitate Medikuntzako espezialista). Adituak azaldu zuen Osasuneko Lehen Mailako Arretak berebiziko garrantzia duela herrialde honetako Osasunean eta Osasungintzan; izan ere, eragin handia du osasun-sistemaren ardatz horri egotz dakiokeen eta ekidin daitekeen morbimortalitatearen gaineko kontrolean.

Halaber, Casado andreak azpimarratu zuen Lehen Mailako Arreta sendoa izateak harreman zuzena duela honako ondorio hauekin: herritarrek osasun hobea izatea, herritarrek osasun hobea nabaritzea eta beharrezkoak ez diren ospitaleratze gutxiago egotea, eta patologia kronikoak dituzten pazienteek Lehen Mailako Arretako ekipoen eta beste espezialista eta profesional batzuen jarraipena jasotzen dutenean bizi-itxaropen handiagoa izatea. Zenbat eta efizienteagoa den Lehen Mailako Arreta, orduan eta efizienteagoa izango da zailtasun ertain eta handiko Ospitaleko Arreta.

Amaitzeko, azaldu zuen Lehen Mailako Arreta sendoa izan dadin, honako ezaugarri hauek izan behar dituela: osotasuna, zeharkakotasuna eta irisgarritasuna. Osotasuna diziplinartekotasuna oinarri hartuta

Verónica Casado

Guillermo Bilbao

eraiki behar da, eta puntu horretan ez dira bakarrik familia eta komunitate medikuak eta erizainak sartzen; fisioterapeuten kolektiboa ere elementu gakoa da.}

Verónicaren ostean Ana Celia Ramosek hartu zuen hitza (Arabako ESIko Lehen Mailako Arretako Fisioterapia-Proiektuko ordezkaria), eta "Lehen Mailako Arretako Fisioterapiaren bidea eraikitzen Euskal Autonomia Erkidegoan (jaiotza eta gaur egunera arteko garapena)" izeneko hitzaldia eskaini zuen. Ramosek azaldu zuen zer-nolako bilakaera izan duen Arabako proiektu-pilotuak: alde indartsuak eta ahulak aztertu zituen eta etorkizunerako planteatu duten proiekzioaren berri eman zuen.

Ana Celia Ramos

Hitzaldia bukatu ondoren, eztabaida-mahai bat osatu zen goizeko hizlari guztiekin, eta asko eta asko izan ziren goizean zehar bildutako zalantzak, iradokizunak eta kontsultak.

Jarraian, bazkaltzeko tartean indarrak hartu ondoren, bigarren mahaiari eman zitzaion hasiera: "Esku-hartze Klinikoko Programak eta Gizarte-jarduerak Fisioterapiatik". Multzo honetako lehenengo hitzaldia Lola Luengorena izan zen (Salamancako Arloko Lehen Mailako Arretako Fisioterapiako arduraduna): "Deribazio-zirkuituak. Praktika klinikoko gidak/protokoloak".

Hitzaldian, Lolak Lehen Mailako Arretako Fisioterapiaren garapenari buruz hitz egin zuen, Gaztela eta Leongo erkidegoaren ikuspegitik.

Urtero laneko jardunaldiak sustatzearen garrantzia aipatu zuen, Lehen Mailako Arretan aritzen diren fisioterapeutek gai komunak zein partekatzen ez

Lola Luengo

dituztenak lantzeko, elkarrekin sintonia berean lan egiteko ildoak finkatzeko. "Elkarrekin gehiago gara".

Ondoren, ikerketaren unea iritsi zen, Unai Martínen eta Marta Jiménezen (UPV/EHUko OPIK - Osasunaren eta Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldeko kideak) hitzaldiaren eskutik: "Zer ekarpen egiten dio Gizarte Determinatzaileen eta Osasun Komunitarioaren esparruak Lehen Mailako Arretako Fisioterapiari?".

Goizeko eztabaida-mahaia

Unai Martín eta Marta Jiménez

Ondoren, Min Kronikoak hartu zuen txanda, Isabel Muñozen (Valladolideko Min Kronikoari modu aktiboan aurre egiteko unitateko taldekidea) hitzaldiarekin: “Min Kronikoari modu aktiboak aurre egitea”.

Eta atsedenaldi txiki bat egin ondoren, Jardunaldien azken hitzaldia iritsi zen: “Osasun Heziketa ikasleen artean,

Isabel Muñoz

fisioterapeutaren ikuspegitik. Ex-Health proiektua”. Luis Espejok eman zuen, Extremadurako Unibertsitateko Terapeutika Mediko-Kururgikoko Saileko irakasle eta ikertzailea. Hitzaldian azaldu zuen ikerketa-beharra dagoela ikasleen min iraunkorraren eraginaren eta garrantziaren esparruan.

Ex-Health proiektuaren ezaugarriak, helburuak eta aurretiazko emaitzak aztertu zituen, eta ezarritako xedeak erdiesteko diseinu-materialak azaldu zituen.

Luis Espejo

Behin arratsaldeko hitzaldiak amaituta, goizean bezalaxe, eztabaida-mahaia sortu zen parte-hartzaile guztiekin, eta horrek eman zion amaiera larunbateko jardunaldiari.

Tailerrak ere amaitu ondoren, Jardunaldiak amaitutzat jotzeko unea iritsi zen, baina, hori egin aurretik Jardunaldiak egia bihurtzeko aktiboki lagundu zuten fisioterapeuten taldeari aipamen berezia egin zitzaion. Mila esker berriro ere.

Arratsaldeko eztabaida-mahaia

MAIATZAK 8, IGANDEA: TAILER PRAKTIKOAK: BERRIKUNTZA ZUHURRA DA: FUNTZIONATZEN DUTEN PROPOSAMEN PRAKTIKOAK

MIN KRONIKOARI MODU AKTIBOAN AURRE EGITEKO TAILERRA - Isabel Muñoz

SENDAGARRIAK DIREN HITZAK. KOMUNIKAZIOAREN GARRANTZIA LEHEN MAILAKO ARRETAKO FISIOTERAPIAN - Paula Areso

ADINEKO AHULEN ERORIKOAK PREBENITZEKO TAILERRA: «ARTROSIA DIAGNOSTIKATU DIDATELAKO NATOR» ESAPIDETIK, «INOIZ EZ NAIZ SENTITU HAIN ONDO ARIKETA FISIKOA (TERAPEUTIKOA) EGITEN» ESAPIDERA - José Ramón Saiz

PARKE BIO-OSASUNGARRIAK
Rafael Velasco

ZAHARTZE AKTIBOA
Isabel Raposo

LEHEN MAILAKO ARRETAN NAGUSIENAK DIREN PATOLOGIETAN ARIKETA TERAPEUTIKOA EGITEKO PROGRAMAK. ALIANTZARAKO ETA ATXIKIMENDU TERAPEUTIKORAKO ESTRATEGIAK - Clara Bergé

Aipamena egiteaz gain, Komunikazio Onenaren Saria eman zen, eta komunikazio honek irabazi zuen: “Minari aurre egitea ikasleen artean, EX-HEALTH proiektuaren bidez. Ikerketa pilotua”.

Eta, amaitzeko, ekitaldia bukatutzat jo zuten Iban Arrien EFEOko presidenteak, Montserrat Inglés FEEko Lehen Mailako Arreta eta Arreta Komunitarioko filialeko presidenteak, eta María Eugenia Sánchez Batzorde Zientifikoko presidenteak.

Amaierako balorazio gisa esan daiteke III. Estatu Mailako Fisioterapia Jardunaldiak Lehen Mailako Arretan jardunaldiek helburu hauek bete zituztela, 150 profesional baino gehiago bertan izan zirelarik: Fisioterapiaren eta fisioterapeuten garapen osoa eta integrazioa lantzea, Lehen Mailako Arretako Fisioterapiaren arloko esku-hartzeen kostu/eraginkortasun harremanari buruz pilatutako ebidentzia zientifikoa jorratzea, deribazio-zirkuituak, praktika klinikoko gidak eta protokolo adostuak, osasun-heziketa ikasleen artean, eta Fisioterapiako profesionalen integrazioa kudeaketa-eredu gomendagarri gisa.

Jardunaldiak aukera bikaina izan ziren Lehen Mailako Arretako Fisioterapia aurreratuen dagoen autonomia-erkidegoen artean garapen eta parte-hartze proposamen onenak ezagutu eta partekatzeko.

Topaketak ikaspen kolektiboa ekarri zuen, lurralde bakoitzeko erronkei hobeto aurre egiteko, benetan funtzionatzen duen ebidentzian oinarritu eta eginiko akats estrategikoak baztertu ondoren.

Komunikazio Batzordea

“Talde-lana funtsezkoa da laguntza integrala eta kalitatezkoa emateko”

AEF-APySCko presidente Montserrat Inglés eta III. Estatu Mailako Fisioterapia Jardunaldiak Lehen Mailako Arretan izeneko jardunaldietako Batzorde Zientifikoko presidente Maria Eugenia Sánchez elkarrizketatu ditugu

AEFko APySCren elkarte filialeko kideek maiz adierazi izan duzue garrantzitsua eta onuragarria dela fisioterapeuten kolektiboa eta diziplina Lehen Mailako Arretako taldeetan integratzeko lana sakontzea. Nola laburbilduko zenukete ematen duen onura hori? Nola islatzen da fisioterapeutaren errealitatea arreta-esparru horretan emandako zainketen egunerokoan?

Egiaztatuta dago onura eztabaidaezina dela; izan ere, Fisioterapiak esku-hartze asko eskain ditzake, bai osasun-arloko prebentzio-, sustapen- eta hezkuntza-jardueren bidez, bai Lehen Mailako Arretako eta Arreta Komunitarioan landu daitezkeen patologia jakin batzuk artatu eta kontrolatzearen bidez. Zalantzarik gabe, ikuspegi bio-psikosoziala eskaini behar da herritarrei arreta ematean, osasun-arazoen arreta ahalik eta onura handiena lortzeko.

Talde-lana funtsezkoa da asistentzia integrala eta kalitatezkoa gauzatzeko, eta, horregatik, aspaldidanik ari gara aldarrikatzen fisioterapeuta Lehen Mailako Arretako Taldeetako kide izan behar duela, betiere aintzat hartuta Osasun-eskualdeetako biztanleriaren onura. Autonomia-erkidego batzuek dagoeneko baloratu dute aukera hori, eta aurten hasi dira zabaltzen.

Hasiera-hasieratik, Laguntza Unitate deitu izan zaigu, eta ez gaude erabat integratuta Taldeetan. Horretarako, araudia aldatu behar da, eta Osasun Ministerioak bultzatu behar du hori, arautzeko, besteak beste, Lehen Mailako Arretako Talde guztietan egotea lortzeko.

Montserrat Inglés III. Estatu Mailako Fisioterapia Jardunaldiak Lehen Mailako Arretan izeneko jardunaldietan

Autonomia Erkidego gehienen egungo errealitatea nahiko urruti dago asmo horretatik; izan ere, Lehen Mailako Arretako fisioterapeutak asistentzia-lanak egiten ditu batez ere Fisioterapiako Unitateetan, eta ia ez du denborarik ematen zeregin komunitarioetan eta osasunaren prebentzio- eta sustapen-lanetan.

Zein patologia artatzen dituzte Fisioterapia Unitateek Lehen mailako Arretako Zentroetan? Gure arretak zer neurritan eman behar dio lehentasun handiagoa patologia horiei ekiteari prebentzio- eta komunitate-esparru bati baino?

Nagusiki patologia muskuloeskeletikoak artatzen dira, konplexutasun txikiko akutuak zein kroniko egonkorrak; hala ere, gero eta osasun-arazo gehiago iristen zaizkigun taldeko hainbat osasun-profesionalek eskatuta, besteak beste aurpegiko paralisia, giltzadura tenporomandibularreko arazoei lotutako aho eta aurpegiko patologia, pelbis-zoruaren desgaitasuna, bertigo paroxistiko onbera eta abar.

Lehen Mailako Arretan fisioterapeuta gutxi daudenez eta eskaria handia denez, denbora gehiena asistentzia-zereginetan ematen dugu bai Unitatean, bai noizean behin pazientearen etxean. Baina, horrek ez luke aitzakia izan behar osasuna eta prebentzioa sustatzeko jarduera

komunitarioak ez egiteko, horiek baitira Lehen Mailako Arretaren oinarria. Ildo horretan, geuk, fisioterapeutok, aldatu beharko genuke gure lanaren ikuspegia, eta, horretarako, lan egiten dugun Asistentzia Mailari dagozkion jarduerak eta zereginak garatu.

Estatuko beste lurralde batzuetan jasotako esperientziek lehen mailako benetako arretari erantzuten diote ala "bigarren mailako arretaren bigarren mailako artatze osagarriak" dira?
Esan dugun bezala, gehienetan, bigarren edo, are gehiago, hirugarren mailako prebentzio gisa jokatzen da batez ere, hau da, ezarritako osasun-arazoak hobetzen edo horien ondorioak murrizten saiatzeko asistentzia ematen da. Horregatik adierazten dugu gure ikuspegia aldatzeko beharra dugula, prebentzioaren arloan baliagarri eta beharrezko bihurtzeko beharra; eta behar hori handitzeko, zalantzarik gabe, baliabide gehiago izan beharko genituzke.

Bilboko III. Estatu Mailako Fisioterapia Jardunaldiak Lehen Mailako Arretan izeneko jardunaldietan entzun genuen bezala, eta gero eta indar handiagoz, ikerketen datuak Lehen Mailako esparru horretan egiten ditugun esku-hartzeen kostu-eraginkortasun erlazioarekin daude lotuta. Zuen iritziz, ba al dago loturarik kontrastatutako eraginkortasun horren eta gure kolektiboan egindako apustu eta inbertsioaren artean? Zuen ustez, profesional/biztanle kopuruaren ratioa, baliabide materialetan eta giza baliabideetan egindako inbertsioa, gure arretaren lehenesteko dinamikak, kolektiboaren eta haren zainketen prestigioa edo osasun-arloko politiken garrantzia bat datoz eta proportzionalak dira aipatutako datuekin, eraginkortasunari eta efizientziari dagokienez? (Erantzuna ezezkoa bada: zergatik ez da, ustez, aintzatesten?)
Zoritxarrez, emaitza horiek ez datoz bat gure lanbideak izan beharko lukeen sustapenarekin eta aintzatespenarekin. Biztanleek eta osasun-profesionalek gero eta gehiago ezagutzen gaituzte, gure esku hartzeen emaitza aitortzen dute eta egunez egun lankidetza handiagoa eskatzen digute, baina zaila da Botere Publikoak fisioterapian inbertitzearen errentagarritasunari buruz kontzientziatzea, nahiz eta, benetan, apurka-apurka aurreratzen ari gara horretan.

1991ra arte, oso fisioterapeuta gutxi geunden Lehen Mailako Arretan, ez gintuzten oinarrizko premiazko sanitariotzat hartzen. Argi dago aurrera egin dugula eta gure prestakuntza biztanleriaren beharretara egokituz joan dela. Gure lanarekin erakutsi dugu erabilgarriak, errentagarriak eta beharrezkoak garela, eta hori da jarraitu behar dugun ildoa: erakustea konbentzitu ahal izateko.

Ezagutzen duzue Euskadin abian jarri den proiektu pilotua. Zer argudio emango zenituzkete diziplina fisioterapeuta Euskadiko Lehen Mailako Arretako zentro guztietan ezarri, garatu eta zabaltzearen aldeko apustu sendoa egitearen garrantziari eusteko?
Euskal Autonomia Erkidegoko kide fisioterapeuten bidez ezagutu genuen, eta gero, zehatzago, III. Estatu Mailako Fisioterapia Jardunaldiak Lehen Mailako Arretan izeneko jardunaldietan. Argi dago oso garrantzitsua dela hasieratik ahalik eta ondoen ezartzea Lehen Mailako Arretako ildo egokienetan lan egiteko.

Argudio asko daude ekimen hau justifikatzeko: fisioterapeuta erabiltzailearengandik hurbil egoteak prozesu askotara azkar eta erraz iristea bermatu behar du; beharrezkoak ez diren ospitaleetako kontsultak saihestuko ditu; itxarote-denborak, farmaziako gastua, lanerako ezintasunagatiko gastua murriztuko ditu; gainerako profesional sanitarioek patologia muskuloeskeletikoak lantzen dituen profesional oso kualifikatu bat izango dute ondoan; bizi-ohitura osasungarriak sustatuko ditu; patologia metabolikoan ariketa terapeutikoan oinarritutako programetan beharrezko kontrola eta jarraipena egingo du; hainbat prozesuren prebentzio-, sustapen- eta jarraipen-lanak egingo ditu etxeetan; eta funtsezko laguntza izango da pazienteentzat, zaintzaileentzat, senideentzat eta osasun arloko gainerako profesionalentzat.

Horrez gain, funtsezko profesionala da paziente kronikoen kontrola eta jarraipena egitean; izan ere, fisioterapiako kontsultan pazienteei babesa, laguntza eta aholkularitza eskaintzen die.

Dena da onuragarria herritarrentzat eta sistemarentzat; ilusioz hasi behar da, beste modu batera lan egiteko gogoz eta proposamen komunitarioetan esku hartzeko asmoz.

Zuen esperientziatik abiatuta eta orain arte dugun informazioaren arabera, nola ikusten duzue fisioterapia Euskadin Lehen Mailako Arretan ezartzeko prozesua?
Bada, pozik ikusten dugu, III. Estatu Mailako Fisioterapia Jardunaldiak Lehen Mailako Arretan izeneko jardunaldietan partekatutako une eta esperientziengatik. Kideek bide egoki bat hasteko duten gogoa eta ilusioa antzematen dugu; izan ere, Lehen Mailako Arretan lanean denbora luzea daramagun kideon esperientziak, ekarpenak, ideiak, aholkuak eta

María Eugenia Sánchez III. Estatu Mailako Fisioterapia Jardunaldiak Lehen Mailako Arretan izeneko jardunaldietan

emaitzak dituzte. Hori guztia, akats berberak ez egiten saiatzeko eta asmatu dugunetik ikasi eta hobetzeko.

Uste dugu, nahiz eta beste autonomia-erkidego batzuetan baino beranduago izan, Euskadi irteera posizio pribilegiatu batetik abiatzen dela eta hori baliatzen jakin behar duela.

Jardunaldietako hitzaldi batzuetan adierazi zen bezala, Euskadin "Ministerioaren 1991ko Zirkular" ezagunarekin bat egiteko gaitzespen politikoaren ondorioz, azken hiru hamarkada hauetan gure kolektiboa eta gure zainketak ez dira integratu Lehen Mailako Arretan eta ezin izan dugu bertan parte hartu. Beraz, ezarpena berantiarra da; hori eztabaidaezina da.Begira dezagun alde positibotik: zure ustez, zer abantaila izango ditu itxaronaldi luze horrek? Agian beste lurralde batzuetan egindako akatsak ez errepikatzeko aukera? Besterik?
Zirkular horretan ideia eta intentzio onak jaso ziren, eta oso lan baliotsua da, lan hori egin zuten lankideen aldetik. Zoritxarrez, ez zen behar bezala ezarri. Alde horretatik, uste dugu aurreko galderan erantzun dugula. Akatsetatik ikasi eta egindakoa baliatu, Lehen Mailako Arretako eta Arreta Komunitarioko Esparru Estrategikoa positiboki baloratzea, bertan islatzen eta indartzen baitira arreta-maila horretako jarduerak, eta gero eta argiago geratu beharko litzateke guztientzat.

Estatu mailan zaintza eta Lehen Mailako Arreta indartzera bideratutako arau-proiektuak, dirudienez, espazio erakargarria eskaintzen du osasun-eremu horretan gure parte-hartzea eta potentzial profesionala indartzeko. Zuen ustez, eta zuen esperientziatik abiatuta, zein neurri edo estrategia hartu behar dituzte erakunde ordezkariek eta Elkarte Zientifikoek ildo horretan geure hazkunde-asmoak argudiatzeko eta horiei eusteko? Nola aberastu edo baliatu dezakegu epe motzean eta ertainean eskaintzen digun aukera hori?
Hainbat ekintza gauzatu behar dira:

- Zerbitzu-karta bat diseinatzea; bertan, Fisioterapia argi eta garbi integratu behar da eta jarduketak ondo definitu.
- Ondorio guztietarako Lehen Mailako Arretako taldeetako kide izateko beharrezkoa den araudia garatzea.
- Fisioterapia plantillak indartzea.
- Fisioterapeuten banakako autonomia, gaitasunak eta erabakitzeko ahalmena indartzea.
- Deribazio-fluxuak sortzea, norabide desberdinetan, fisioterapeutaren erabakiak lehenetsiz (beste profesional batzuekin gertatu bezala).
- Fisioterapiako prebentzio , sustapen eta komunitate jarduerak ahalbidetzea eta indartzea.
- Fisioterapia espezialitatea sortzea Lehen Mailako Arretan eta Arreta Komunitarioan.

Baina hori denon lana da: Administrazioarena, Fisioterapia ordezkatzen dugun erakunde guztiona, eta Lehen Mailako Arretan aritzen garen lankide guztiona. Horren adibide argia izan da aipatutako Jardunaldiak Euskadin egitea.

Zuen lurraldeetan, Lehen Mailako Arretako taldeetan kolektibo horrek duen integrazioa eta parte hartzeari dagokion esperientzia zabala da. Zer mezu edo gomendio helarazi nahiko zenieke Euskadin hasten diren taldeei?
Ausartak eta indartsuak izatea, elkarrekin aritzea, ez uztea beste kolektibo batzuek mendean hartzen, Fisioterapiako gaitasunak, banakako autonomia eta gure zaintzen profesionaltasuna defendatzea, herritarren osasunaren arloko emaitzak erakutsi eta azaltzea, erabiltzaileen gogobetetasuna ikusgarri egitea, Taldearekin lankidetzan aritzea, beren unitatean ez isolatzea, unitatetik ateratzea osasun etxeetara, etxeetara, komunitatera, bertako bileretan eta prestakuntza-jardueretan parte hartzea...

Ez da erraza izan, eta oztopoz betetako bidea izan da eta izaten jarraitzen du, kontrola ez gaitzaten etengabeko borroka (bereziki ospitaleko zerbitzuek), baina, zorionez, emaitzak ikusten ari gara, eta ildo horretan jarraitu behar dugu lanean.

Zer azpimarratuko zenukete zuen bilakaera profesionalean? Arreta-esparru horrekin harremanetan jarri zinetenetik zer aldaketa gertatu dira zuen ikuspuntuan, zainketan, zereginetan, taldearekin duzuen harremanetan, laneko dinamiketan... ?
Guretzat oso esperientzia positiboa izan da; zailtasunak aurkitu ditugu, baina gaur egun ez nuke beste eremu profesionalik aukeratuko.

Gaitasuna eta autonomia profesionala garatu ditugu eremu publikoan, gainerako profesionalek eta erabiltzaileek gure erabakiak errespetatzen dituzte, gure irizpidean konfiantza dute eta aholkularitza eskatzen digute. Pazienteek babes eta erreferente hurbil eta eskuragarria dute, laguntza, zalantza asko argitzen ditugu, profesional sanitario bat gehiago dute etxeko atean eta lasaitasuna ematen diegu.

Pandemia garaia zaila izan da, eta Lehen Mailako Arretan jaso ditugun kritikak gorabehera, gure esperientziaren arabera, hiritarrengandik inoiz baino hurbilago aritu gara.

Azkenik, Bilbon ospatu diren jardunaldiei buruz duzuen iritzia jakin nahi dugu; izan ere, antolakuntzarekin bat egin eta ekarpenak egin zenituzten.
Lehenik eta behin, guztiok egindako lana azpimarratu behar dugu, bereziki Euskadiko Elkargoak egindakoa. Antolakuntzan eta hara joaten garenenganako tratuan jarritako arreta bikaina izan da.

Esan dugun bezala, parte-hartzaile eta kolaboratzaileengan hautemandako ilusioa (gure espektatibak nabarmen gainditu zituen), partekatutako jakintzaren inguruko gogobetetasuna, hizlarien maila eta haien parte-hartze eskuzabala.

Laburbilduz, erabateko arrakasta.

Gure aldetik, espero dugu Lehen Mailako Arretan Fisioterapia ezartzeko eta garatzeko balio izana; izan ere, hori zen gure helburu nagusia.

Mila esker zuen denboragatik
Mila esker egindako lan onagatik.

Komunikazio Batzordea

2022ko Hauteskundeak: Elkargoko Batzar Berria

Elkargokide agurgarriak:

Behar den garaian jakitera eman dizuegunez, apirilaren 19an Euskal Autonomia Erkidegoko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren Gobernu Batzarrerako hauteskundeak deitu ziren.

Estatutuetan hautagaitzak aurkezteko ezarritako denbora igaro ondoren, hautagaitza bakarra jaso zen; hortaz, Elkargoaren Estatutuen 46. b) artikuluak zehazten duenez, eta beste hautagaitzarik ez dagoenez, hauteskunde-epea amaitutzat eman zen. Elkargoaren Gobernu Batzar gisa aurkeztutako hautagaitza automatikoki aldarrikatu zen.

Maiatzaren 16an, elkargoaren egoitzan Gobernu Batzar berriak kargua hartu zuen, eta honako hauek osatzen dute:

- Presidentea: Iban Arrien Celaya jn.
- Presidenteordea: Asier Arrizabalaga Otaegi jn.
- Idazkaria: Leire Peña Belarra and.
- Diruzaina: Edurne Andueza Zabaleta and.
- 1. kidea: Edorta Ansoleaga Unibaso jn.
- 2. kidea: Andrea Marina Scolari Tártara and.
- 3. kidea: Fernando Lázaro Conde jn.
- 4. kidea: Borja Salcedo Echeverria jn.
- 5. kidea: Ane Arbillaga Etxarri and.

Espero dugu informazioa zuen interesekoa izatea.

Agur bero bat

Komunikazio Batzordea

POSTGRADO DE EXPERTO UNIVERSITARIO:
Fisioterapia del suelo pélvico

universidad SANJORGE GRUPO SANVALERO

fisiofocus

Del 13/01/2023 al 25/06/2023

10 seminarios presenciales de fin de semana

Bilbao

Formación acreditada por la Universidad de San Jorge con 375 horas y 15 créditos ECTS

Coordinado por Laura Calzado

1. Fundamentos del suelo pélvico
Anatomía, fisiología, fisiopatología, valoración y tratamiento médico-quirúrgico
Valoración y tratamiento fisioterapéutico en las principales disfunciones del suelo pélvico en mujer, uroandrológica y niño

2. Embarazo y postparto
Generalidades del embarazo. Fisioterapia obstétrica

3. Abordaje biopsicosocial
Nutrición en las hormonas sexuales femeninas
Abordaje del dolor pélvico crónico

4. Técnicas de tratamiento: terapia manual e invasiva
SD dolor miofascial. Punción seca
Terapia miofascial en el suelo pélvico
Terapia manual visceral y tratamiento estructural de la pelvis ósea

5. Terapia activa y control motor
Ejercicio terapéutico hipopresivo
Terapia activa en la mujer. Control motor y método pilates en el embarazo y postparto

¡Reserva tu plaza!

secretaria@fisiofocus.com
615 85 25 76

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Arloko Lanbideak Arautzeko Euskal Legea Onartu Da

8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa.

Joan den ekainaren 30ean onartu zen *8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa*. Bertan jasotzen dira kirolaren arloko lanbideen definizio guztiak, horien jardun-eremuak eta jarduteko behar den kualifikazioa.

Lege horrekin amaiera eman zaio erregulazio ezari eta gure lurraldeko kirol-eremuarekin lotutako kolektibo eta erakunde profesional esanguratsuenen eskari historikoari. Hala, Euskadik bat egiten du araudi propioak dituzten beste autonomia-erkidego batzuekin, hala nola Kataluniarekin, Madrilekin edo Extremadurarekin, eta oinarri arautzaile bat proiektatzen da, segurtasun- eta berme-esparru bat eskaini nahi duena, ez bakarrik jarduera fisikoarekin eta kirol-jarduerarekin lotutako sektore profesionalei dagokienez, baita zerbitzu horiek erabiltzen/egiten dituzten kolektiboei dagokienez ere.

Legea Eusko Jaurlaritza osatzen duten EAJ-PNV eta PSOE alderdien aldeko botoarekin onartu da, eta EH-BILDU eta Euskal Talde Popularra-Ciudadanosek babestu egin dute. Bestalde, Elkarrekin Podemoseko ordezkariak abstenitu egin dira eta Talde Mistoa-VOXek aurkako botoa eman du.



historia labur bat...

Eusko Legebiltzarrak 1998an onartu zuen 14/1998 Legea, ekainaren 11koa Euskadiko Kirolarena.}Lege horrek bere artikuluetan jaso zuen Euskadin beharrezkoa zela "*dagokion titulu ofiziala izatea*" kirol-arloarekin lotutako hainbat zerbitzu (irakaskuntza, zuzendaritza, kudeaketa, entrenamendua...) gauzatu eta eskaintzeko. Hala ere, ez zen zehaztu zer titulazio eskatu behar zen eta horrek zehaztugabetasun handia eragin zuen aldi luze batean; ondorioz, eskakizun hori erregulatuko zuen araudi bat sortu behar zen.

Ildo horretan, eta onartu berri den Arauaren zioen azalpenean adierazten den bezala, "*pertzepzio orokorra da ez dagoela lanbide-araudirik, eta horrek berekin ekarri duela, batetik, prestakuntzarik gabeko pertsonak sartzea merkatuan eta, bestetik, behar baino kualifikazio gutxiagoko jendea aritzea lanbide horietan*". Hori dela-eta, plan horren lehentasunezko helburuetako bat zen lanbide horietan jarduteko behar diren gutxieneko titulazioak arautzea, kontuan izanik, planean bertan onartzen denez, kirola egitearen eragina pertsonen osasunean eta segurtasunean.

Kezka partekatu hori ordurako jasota zegoen *Euskal Autonomia Erkidegoan*

Kirol arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko Lege Proiektuaren lehen testuan (2016ko apirilaren 15eko EHAAn argitaratua).Lehenengo idazketa hartan, arau-proiektuak testuinguruan jartzen zuen "*kirolarien osasun eta segurtasunarekin zuzenean lotuta dauden kirol-jardueretan gutxieneko prestakuntzarik gabe lanbidean jardutearen problematika*" eta honako hau adierazten zuen: "*ezin uka daiteke kirol-arloko lanbide batzuk kirolarien osasunean eta segurtasunean eragiten dutela. Hori dela eta, nahitaezkoa da arautzea nola sartu eta jardun lanbide horietan; izan ere, eremu horretan, prestakuntza egokirik gabeko profesionalek bete izan dituzte lanbide-jarduera horiek*". Azken batean, Gobernu-organoak herritarrek kirola "*izan beharreko prestakuntza ez duten pertsonek zuzenduta edo gainbegiratuta*" egiteak ekarriko lukeen arriskua eta mehatxua hartu zituen gure lurraldean kirol-eremuarekin lotutako lanbideetan sartzea eta jardutea arautzeko beharra defendatzen zuen argudio-oinarritzat.

EFEOren protagonismoa...

EFEOk hasiera-hasieratik egin du bat Arauaren diseinuaren eta garapenaren azterketarekin. *Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordera* bertaratzeko aukera eskatu zuen, Batzorde hori baita lege honen Legebiltzarreko arduraduna, eta dokumentu tekniko-juridiko asko aurkeztu zituen. Gure ustez, interes handiz jaso ziren dokumentu horiek.

Herritarrek parte hartzeko sarea deiturikoan sartuta gaude, beste erakunde ugarirekin batera (*Kirol Zuzenbidearen Euskal Elkartea, SOS Eskola Kirola, Euskadiko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatuen Elkargo Ofiziala, Kirolaren Kudeatzaileen Euskal Elkartea, Harrobia, UPV/EHU, Lanbide Heziketako Zentro Integratua, Kirolene, Jarduera Fisikoaren Enpresaburuen Bizkaiko Elkartea, ELA eta LAB sindikatuak, Espainiako Gorputz eta Kirol-Hezkuntzaren Kontseilu Nagusia, GaituzSport, Kirol Egokituaren Euskal Federazioa...*), Legearen izapidetzean parte hartu eta ekarpena egin dugu, eta oinarrizko zutabea izan da, nabarmen lagundu baitu lortu nahi den erregulazioari buruzko legitimazio sozialean.}

Litekeena da pertsona jakin batzuentzat deigarria izatea Lege honek eta bere proiektu eta ibilbide arautzaile guztiak elkargo-erakunde honetan hasieratik piztu duten interesa. Izan ere, kirolaren arloko lanbideak arautzea xede duen arau-proiektuari eta lege onartu berriari buruz ari gara, eta, horrek, itxuraz, ez du zerikusirik, a priori, osasun-diziplina batekin eta -kolektibo batekin. Baina, hori ez da horrela.

Argi dago legearen artikulu gehienak gure diziplina profesionalari dagozkion edo ia ez dagozkion arautze-alderdiei buruzkoak direla. Hala ere, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduatuen kolektiboari osasun-arloko eskumenak emateko hasierako asmoak (lehen zirriborroan 4.7 artikulua sartu zen, non esplizituki adierazten baitzen "*osasun-arazoak eta antzekoak dituzten pertsonekin*" lan egiteko gaikuntza behar zela) kezka sortu zuen Elkargo honetan eta orduan Gobernu Batzarreko kideen artean. Hortaz, azterketa sakon bat egin genuen, sinergiak eta konpromiso politikoak bilatu, kontsulta tekniko ugari egin, Legebiltzarreko talde guztiekin zuzeneko harreman izan eta Legebiltzarreko Ganberako *Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirola Batzordean* hiru agerraldi.

Ibilbide luze eta konplexu osoan zehar, Elkargoak gure protagonismoa azpimarratu nahi izan du, Kirolaren eta Osasunaren arteko harremanaren alderdi zabal eta zeharkakoaren aurrean. Zalantzarik gabe, binomio banaezin hori oinarrizko eta garrantzi bereziko alderditzat hartu da zirriborroen eta onartutako Legearen behin betiko testuaren azterketa juridikoan. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduatuen ordezkaritza-organo gorenek egin nahi zuten "eskumen-aldaketa" horren lekuko izateak (izan ere, esparru sanitario/terapeutikoetan murgiltzeko gero eta interes handiagoa erakutsi zuten) eztabaida biziak izatera eta Fisioterapiak betetzen duen eta betetzen jarraitu behar duen espazioa gogor defendatzera eraman gintuen.

Murgiltze sanitarioaren asmo horren adibide argia da Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako graduatu/lizentziadunen kolektiboaren ordezkaritza-organo gorenak Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari 2017ko irailean egindako kontsulta.

Eusko Legebiltzarraren egoitza- EFEOren 2016ko maiatzaren 31ko agerraldia
EFEOren izenean: Presidente Jon Herrero jauna (erdian), idazkari Roberto Romero jauna (ezk.), eta aholkulari juridiko Severino Setien jauna (esk.)

(Galdera) "...beste osasun-profesional batzuekin batera, gaitasun eta eskuduntza profesionalak gara ditzakete ariketa fisiko terapeutikoaren arloan, pertsona osasuntsuentzat edo patologiak dituzten pertsonentzat ariketa fisikoa programatzeko, hau da, gaixotasunak edo lesioak dituzten pertsonak errekuperatzeko, haien ezaugarrietara eta beharretara egokitutako ariketa fisikoen bidez, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak aplikatuz".

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Kontseilu Nagusiak (COLEF Kontseilua) Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari egindako eskumen-esparruari buruzko kontsulta. 2017ko irailaren 8a

Berehala erantzun zitzaion COLEF Kontseiluaren kontsulta hari: ezezko biribila.

Zuzenbidearekin bat etorriz, Ministerioak emandako argudioak bat egin zuen EFEOk defendatutako jarrera sendoarekin:

*"...aurretik aipatu ditugun gradudunak/lizentziadunak **ezin dira** jarduera fisikoaren antolaketaren, plangintzaren eta koordinazioaren arduradunak izan, **lesionatutako edo patologiak dituzten pertsonei eragiten dienean**..."*

*"Lesionatutako pertsonekin egiten den jarduera fisiko terapeutikoa, zalantzarik gabe, **jarduera sanitarioa** da..."*

*"...ez dute prozesu eta gaixotasunetarako (hezurren eta artikulazioenak, kardiobaskularrak eta arnasketari lotutakoak, besteak beste) beharrezkoa den etiologiako eta fisiopatologiako prestakuntzarik, **paziente bakoitzak behar duen jarduera fisikoaren egokitzapen** egokia bermatzeko"*

*"...Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradudunek/lizentziadunek **gaitasuna eta betebeharra dute lesionatutako kirolaria dagokion profesional sanitariora bideratzeko, kasu honetan fisioterapeutarengana**, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Medikuntzako eta Familia eta Komunitateko Medikuntzako espezialistengana..."*

Gogoan izan behar dugu Osasun Ministerioaz gain, beste batzuek ere azpimarratu zutela kolektiboa "ez zela sanitarioa". 2016an *Kirol Kontseilu Gorenak* Eusko Jaurlaritzako Barneko Araubideko sailburuorde Sabino Torre jaunari bidalitako txosten batean (*Autonomia Erkidegoekin Eskumenak Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiaren eta Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioko toki-erakundeen bitartez*), profesional sanitarioen gatazka kolektibo saihestezina aurreikusten zuen; izan ere, heren iritziz, Euskal Legearen Proiektuan ezarritako artikulu batzuk "*ez zirela baketsuak beste lanbide batzuei erreserbatutako eskumenekin, eta horixe zen Fisioterapiaren kasua, besteak beste*".

Gambau i Pinasa jaunaren agerraldi telematikoa. COLEF Elkargoko presidentea. Eusko Legebiltzarraren egoitza, 2021eko apirilaren 26a.

Askotan azpimarratu izan dugun bezala, "*osasungarria ez da sanitarioarekin nahastu behar*".

Zalantzarik gabe, eta aurretik adierazi bezala, osasuna sustatzeko eta prebenitzeko estrategiak ez dira arlo sanitariokoak soilik, eta patologia duen pertsonak eskubide osoa du kirola edo jarduera fisikoa egiteko, bere aukeretara eta premietara egokituta eta berme eta segurtasun handienarekin. Horretarako, beharrezko prestakuntza duten pertsonen ikuskapen eta zuzendaritzapean egin beharko dute, baina **ez paziente gisa, kirola egiten duen pertsona gisa baizik**. Alde horretatik, kirol jardueraren eta jarduera fisikoaren balioa defendatu dugu "*gizartearen ongizatea eta osasunerako*" oinarrizko estrategia eta gizarte kohesiorako oinarrizko elementu gisa. Hala ere, aldi berean hori interpretatzeko beharrezko mugak kontuan hartu behar dira:

"*Esku hartzearen bidez helburua ongi sentitzea, hobeto sentitzea eta osasun-egoera hobetzea bada, aurrera. Helburua ariketa fisikoa eginez osasun-arazoak tratatzea, sendatzea, arintzea, berreskuratzea edo horiei heltzea bada, jarri fisioterapeutekin harremanetan*" -Jon Herrero. EFEOko presidentea-.

Zoritxarrez, araudiak egindako ibilbide horretan zehar hainbat konturen lekuko eta protagonistak izan gara: eskumenekiko erasoak, kirolaren eremuko sektore batek lan-nitxo berriak ausarkeriaz bilatzea, eta, are okerrago, kolektibo profesional horren ordezkari instituzional eta akademikoek eragindako interpretazio-manipulazio larriak.

Aintzatespen falta horren adibide garbia da kolektiboaren organo ordezkari goreneko (COLEF Kontseilua) presidente Vicente Gambau i Pinasa jaunak 2021eko apirilaren 26an Eusko Jaurlaritzako *Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Batzordearen* aurrean egindako azkeneko agerraldi telematikoa. Bertan, aurkeztutako testuaren azken zirriborroari buruz egin genituen azterketak publikoki partekatzeko agerraldietan EFEOren parte hartzea onartu ondoren, zentzugabekeria hau bota zuen: (sic) "*...Ez dut ulertzen zergatik sartu den fisioterapeuten elkargoa legearen barruan. Jakin nahiko nuke jarduera fisikoko zein eskumen onartuta dituzten Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzko Legean eta ikasketa-planetan. Hau da, margolariak edo haiekin nolabaiteko zerikusia duen beste edozein lanbide sartzearen antzekoa izango litzateke*".

Dirudienez, Gambau i Pinasa jaunak parekotasunak topatu ditu fisioterapeuten eta "margolarien" kolektiboen artean, jarduera fisikoaren eremuko eskumenei dagokienez, eta beharrezkotzat jo du hori azpimarratzea Eusko Legebiltzarraren Ganberaren aurrean.

Zorionez, eta azkenean onetsi zen testua kontuan hartuta, bertan zeuden legebiltzar-taldeen iritzia bestelakoa zen.

Alde batera utzita kirol-arloko ordezkari goren batzuen adierazpen zentzugabe eta errespetugabe horiek, eta legediaren esparrua eta Arauaren ibilbide juridikoa aztertu ondoren, gure analisia eta ondorioa modu eztabaidaezinean azaldu genuen: "*osasun-arazoei heltzeko, eta, ziurrenik, lan-nitxo berriak aurkitzeko kirol-arloko lanbideekin lotutako kolektibo garrantzitsu batek duen gero eta interes handiagoari interpretazio malgua eta laxoa izan dezakeen araudiaren erregulazioa gehitu behar badiogu, horrek gatazka bermatzen du; ondorioz, jarduera fisikoaren eta/edo kirolaren arloko jardueren erabiltzaileen segurtasuna askotan jartzen da arriskuan.*"

"*Ez gaitzatela nahastu: gernu-ihesa ez da osasuntsua denaren ikuspuntutik tratatu behar, erronka sanitarioa baita; bizkarreko mina arintzea ez da osasun-aukera bat, arazo sanitarioa baizik; miokardio-infartu akutu baten ondoren egin beharreko egokitzapen kardiobaskularra ez da osasun-estrategia, eskakizun sanitarioa baizik... Eta horren arabera tratatu behar dira*"- hori adierazi zuen 2016an Roberto Romerok-.

Azkenean onartutako testua...

Ekainaren 30eko 8/2022 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa, (*https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2022/07/2203265e.pdf*) behin betiko onartu zen ekainaren 30ean.

Elkargoaren kezka handiena piztu zuten artikuluei dagokienez, testu arauemaileak guk egindako zuzenketa-eskaerak eta ekarpenak zehatz-mehatz jasotzen ditu. Oso harro gaude.

Eta harro gaude hiru puntu hauek jorratu direlako:

- *Lehenengoa*. ***1. artikuluko 2. apartatuan*** berariaz jasotzen da "*kirol-zerbitzuetako erabiltzaileen edo eskatzaileen eskubidea zaintzea*"; halaber, azpimarratzen da kirolari/erabiltzaile kolektiboaren eskubidea sustatzea "*kirol-praktika segurua izateko, osasunean eta osotasun fisikoan edozein kalte saihesteko*".
- *Bigarrena*. Aldatu egin da lehenengo zirriborroan jasotako ***4.7 artikuluaren*** idazketa nahasgarria eta laxoa. Bere baliokidean (***8. artikulua***) adierazten da "kirol-monitore" figura profesionalaren sarbiderako eta jardunerako berariazko araudia. Bertan "osasun-arazoei" egindako aipamenak ezabatu egin dira, eta, horri esker, saihestu egin da 2016ko testuan hauteman genuen konpetentzia-haustea Zoritxarrez, ez dugu lortu beste eremu batzuetan "osasun-arazoei edo baliokideei" egindako aipamena ezabatzea; hortaz, eremu profesional sanitario eta ez sanitarioen arteko gatazkari ateak ireki zaizkio, eta dagoeneko hauteman ditugu segurtasun-gabeziaren lehen agertokiak kirol-zerbitzu horietako praktikanteen/erabiltzaileen artean, eta, nola ez, arlo juridikoko lehen buruhauste handiak.
- *Hirugarrena*. EFEOk berariaz eskatuta, lortu dugu bi kolektiboen arteko eskumen-esparruak zorroztasunez mugatzen dituen artikulua gehitzea. Hortaz, "Lanbide-jardueraren betebeharrak" mugatzeari buruzko ***14. artikuluan***, apartatu bat dago (***k apartatua***), eta honako hau jasotzen du:

> ***14. k art.***_*Lankidetza aktiboan jardutea kirolariei errendimendu edo osasun hobea izan dezaten lagun diezaieketen beste profesional batzuekin,* ***betiere disfuntzio edo desgaitasun somatikoak dituzten pertsonei errekuperazio- eta errehabilitazio-zerbitzuak eman gabe fisioterapeutei dagozkien eginkizun profesionalei berezkoak zaizkien baliabide edo agente fisikoak darabiltzaten tratamenduen bidez.***

Legebiltzar-taldeekin partekatu dugun bezala, adierazpen zehatz hori bat dator guk proposatutako argudioekin. **Egokia eta beharrezkoa den** arau-elementutzat jotzen dugu, eta modu zorrotzean eta eraginkorrean kokatzen du Lege honetan konplexua den aldagaia, hots, hiritarren segurtasuna. Halaber, balioa ematen dio Arauaren helburuetako bati, hau da, kirol-arloko lanbide jakin batzuetan sartzeko eta jarduteko funtsezko alderdien antolamendu esklusiboari, **arlo sanitarioan konpetentziarik gabe**.

Euskal Herriko Soin Iharduera eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatuen Elkargo Ofizialak (EHSIKZLEO) aldez aurretik eskatu zuen apartatu hori aldatzea eta zerbitzu sanitarioak emateko betebeharrari egindako aipamena kentzea; hortaz, pentsa dezakegu uste baino beharrezkoagoa zela aldaketa sartzea.

Zuzendaritza Teknikoa

Artikuluaren irudiak Eusko Legebiltzarraren webgunetik atera dira

Eusko Legebiltzarraren egoitza
EFEOren 2021eko apirilaren 26ko agerraldia

Fisioterapia UPV/EHUko ikasleen artean gehien eskatzen diren titulazioen Top 20an mantendu da

Egun hauetan, datorren ikasturtean unibertsitateko ikasleak izango direnek gradu desberdinetan izena eman dute behin behinean, aukeratu dituzten ikasketetan onartuak izateko. Unibertsitate-ikasketen eskariak gorantz jarraitzen du, eta, hortaz, ikasi nahi dutena aukeratzeko gutxieneko notak ezartzen dira.

Azkeneko urteotan gutxieneko nota oso altua duten titulazio bikoitzak sortu dira. Plaza-kopurua oso txikia denez, horrek sartzeko nota zehazten du. Espedienterik bikainenak dituzten ikasle onenek gradu biosanitarioen alde egiten dute, eta Fisioterapia horien artean dago.

Aurten, lehen aldiz, Fisioterapia Graduko gutxieneko nota 12,08 izan da (gehienez ere 14 lortu daiteke). Horrek graduaren goranzko joera berresten du; izan ere, 2017an gutxieneko nota 11,3 izan zen, eta urtero gora egin du.

Zehazki, Fisioterapia gehien eskatzen diren graduen artean 19.a da, eta 60 plaza daude. Horrek etorkizun paregabea bermatzen du.

Halaber, garrantzitsua da top 20 zerrendan dauden gainerako titulazio biosanitarioak zoriontzea, hala nola Medikuntza, Odontologia, Farmazia + Giza Nutrizioa eta Dietetika gradu bikoitza eta Erizaintza.

Borja Salcedo

LANBIDE BIOSANITARIOEN GUTXIENEKO NOTAK

POSIZIOA	TITULAZIOA	GUTXIENEKO NOTA
2	MEDIKUNTZA	13,06
5	MEDIKUNTZA (euskara)	12,84
7	ODONTOLOGIA	12,748
10	GRADU BIKOITZA: FARMAZIA + GIZA NUTRIZIOA ETA DIETETIKA	12,617
14	ERIZAINTZA (Bizkaia)	12,299
15	ERIZAINTZA (Gipuzkoa)	12,202
19	FISIOTERAPIA	12,08

IN MEMORIAN
Emilio Morlán Garrido Jn.

Uztailaren 3an bere bizitza Fisioterapiari eskaini zion lankide aparta hil zen, Emilio Morlán Garrido jauna.

Bere ibilbidea Basurtuko Ospitalean hasi zuen, 1965ean, fisioterapeuta gisa. 1969tik 2007ra Echevarria fabrikan lan egin zuen, Aseguruen Mutua Orokorrean eta La Fraternidad Mutuan.

1995ean, Fisioterapeuten Espainiako Elkarteko Symposiumean 1. saria lortu zuen jardun librean.

Fisioterapeuten Espainiako Elkarteko kide sortzailea izan zen (21. zk.), eta Euskadiko ordezkaritzako Zuzendaritza Batzordeko kidea, 1969tik 1997ra arte.

Fisioterapiako Unibertsitateko Diplomaturako lehen Ikasketa Plana sortzeko Batzordeko kide izan zen 1984an.

Halaber, Euskadiko lehenengo Fisioterapia Eskola sortu zuen batzordeko eta Publizitate Sanitario Engainagarriari buruzko Batzordeko kide izan zen.

Elkargoak maite zuen lanbidearen mesedetan egindako lana aintzatesteko 2017ko Euskadiko III. Fisioterapia Sarietan Fisioterapia Ibilbide Onenaren saria eman genion, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburu Jon Darpón jaunaren eskutik.

Lerro hauen bidez Emilio omentzea dugu helburu, hurbiltasunagatik, adeitasunagatik eta Fisioterapiaren hazkundearen mesedetan egindako lanagatik.

Guztion izenean, gure doluminik bizienak senideei eta lagunei.

Gobernu Batzarra

Heziketa-Kontratua eta 2021eko Lan Erreforma

EFEO AJtik uste dugu zuen interesekoa izango dela **2021eko Erreformaren** (32/21 ELD[1]) ondorioz sortutako lan-nobedadeei buruzko ezagutza izatea HEZIKETA kontratuei dagokionez (11. ART 3ºLE) (2022/03/31tik aurrera).

Hemendik aurrera, ikasketen arloan, **lanbidean trebakunzta egokia erdiesteko HEZIKETA KONTRATUA** izango dugu, eta lehengo parktikaldiko kontratua ordezkatuko du. Izen horren baitan lehengo praktikaldiko kontratua eta heziketa- eta ikaskuntza-kontratuak daude. Bi kontratu moten uztarketa da. Gainera "txandakako heziketa-kontratua" egongo da, eta horren helburua da lan jarduera ordaindua eta dagokion heziketa prozesuak bateragarri egitea, eta idatziz formalizatuko da enpresaren eta ikasle-langilearen artean.

Artikulu honen azterketa xede den kotaratuaren (lanbidean trebakuntza egokia erdiesteko HEZIKETA-KONTRATUA) **helburua da ordainduta eta heziketa bermatuko duen kontratua sortzea**. Horren xedea da ikasketa titulua lortu ostean (unibertsitatekoa, gradukoa, etab.) benetako praktikak egitea edo Enplegu Sistema Nazionaleko heziketa-espezialitateen katalogora sarbidea izatea.

Lan-kontratu horren ezaugarriak aurreko kontratuaren antzekoak dira, baina honako elementuak aldatu dira:

- Lan erreformaren bidez, 5 urtetik **3 urtera** murriztuko da kontratua sinatzeko epea ikasketak amaitu ondoren (eta 7 urtetik 5 urtera desgaitasuna duten ikasleen kasuan).
- Gainera, horien epea mugatuko da, eta hemendik aurrera **6 hilabete eta 1 urte** artekoa izango da; 1 hilabeteko probaldia edukitzeko aukera egongo da. Lehen 2 urte artekoak izan zitezkeen.

- Horrez gain, hori betetzeko, interesdunek guztiz **bukatuta** behar izango dituzte euren ikasketak.
- Derrigorrezkoa izango da kontratistak enplegatuari praktiken **ziurtagiria ematea**.
- Horrez gain, modalitate horren bidez kontratuak egiten dituzten enpresek, **banan-banan, ikasle bakoitzeko plan bat** sortu beharko dute, eta bertan edukiak eta izendatutako tutorea zehaztuko dira.
- Ezin izango da egin 3 hilabetez baino gehiagoz lan esperientzia izan duten edo enpresan bertan heziketa jarduera berdina egin dutenekin.
- Ezingo da kontratu mota hau egin aldez aurretik lan egindako enpresan (beste bat izan beharko da).
- Unibertsitateko ikasketei dagozkien gradu, master eta doktoregoko tituluak ez dira titulazio berekotzat hartuko, salbu eta, lehen aldiz kontratatzen direnean, dena delako goi-mailako titulua baldin badute.
- Ezingo dira aparteko orduak egin (soilik ezinbestekoak badira), ezta gaueko ordutegia izan ere.

Orain arte, lan-hitzarmenean lanpostu berdinerako edo baliokiderako zehaztutako soldata finkoaren **ordainsaria** % 60ean murriztu zitekeen lehenengo urtean zehar, eta % 75ean bigarren urtean; erreformak murrizketaren aukera hori deuseztatuko du. Hitzarmen kolektiboan kontratu edo lanbide-talde horietarako ezarritako ordainsari ekonomikoa eta betetako eginkizunei dagokien ordainsari-maila finkatzen dira (ezin da izan txandakako prestakuntzarako kontratuaren gutxieneko ordainsaria baino txikiagoa, ezta indarrean dagoen LGSa[2] baino txikiagoa ere, benetako lan-denboraren proportzioan).

Modalitate horri dagokionez, Gizarte Segurantzako afiliazio-eremuan identifikatuko da, gaur egun lanaldi osoko eta partzialeko praktikaldiko kontratuetarako erabiltzen diren lan-kontratuen kodeekin; hau da, CT **420** eta **520 kodeekin**, lan-bizitzako identifikazio azkarra baimentzen baitute.

Espero dugu azalpen (labur) hau erabilgarria izatea, eta aurrerago produkzioaren gorabeherengatiko kontratuan edo aldizkako kontratu finkoan sakontzeari kalterik egin gabe, agur bero bat EFEO AJtik.

Aholkularitza Juridikoa

[1] Abenduaren 28ko 32/21 Errege Dekretua, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoa, Langileen Estatutua aldatzen duena
[2] Lanbide arteko gutxieneko soldata

Aholkularitza juridikoko zerbitzuaren helburua da aholkularitza juridikoa ematea elkargokideei eta Gobernu Batzordeari, zuzenean edo zeharka fisioterapiaren jarduera profesionalari lotutako arlo guztietan.

Aholkularitzak zuzenbidearen arlo hauek barne hartzen ditu: zibila, penala, sanitarioa, zehatzailea, administratiboa, lanekoa, fiskala, finantzarioa, higiezinena, komunitarioa, sozietarioa eta merkataritzakoa. Hauek dira elkargokideen artean egon diren kontsulta-gai ohikoenak: fisioterapia-zentroak eskualdatzea eta martxan jartzea, irakaskuntza, hitzarmenak, LAAB, erantzukizun zibileko asegurua, DBLO, PFEZ, lana atzerrian, Osakidetza, Ordainbideen Legea, tarifak, istripuen aurreko asegurua, hitzarmen kolektiboa eta beste elkargo batera aldatzea.

Zerbitzua doakoa da elkargokideentzat, eta aholkularitza barne hartzen du soilik. Hau da, ez du dokumentuak prestatzea, edo aholkularia auzitegi, organismo, ikuskaritza eta abarretan bertaratzea barne hartzen. Horrelakorik egitekotan, aholkulari juridikoak lan horiek fakturatuko lituzke, elkargokidearekin adostutako zenbatekoan.

Aholkularitza-zerbitzu hori erabiltzeko, aldez aurreko kontsulta bat hitzartu behar da elkargoko idazkaritzara deituta, fax bidez edo posta elektronikoz.

Hau da aholkularitza juridikoaren ordutegia:
Astelehena: 17:00-21:00
Asteartea: 15:30-19:30
Ostirala: 9:30-14:00

Letradua: Severino Setién Álvarez jn.
Tel.: 94 402 01 55
Helbide elektronikoa: setien@cofpv.org

administrazioak jakinarazten du

Elkargokide hori:

Administraziotik hauxe gogorarazi nahi dizugu:

- Udako ordutegia dela eta, **EFEOko ordutegia uztailaren 1etik irailaren 2ra** arte ondorengoa izango da:
    - **Astelehenetik ostiralera: 08:00etatik - 14:30etara**

- EFEOa **2022ko uztailaren 25ean eta abuztuaren 15 eta 26an** itxita egongo da, herriko jaiak direlako.

- 2022ko bigarren seihilekoari dagokion elkargokide kuota (117€) **2022ko uztailaren lehenengo hamabostaldian** helaraziko zaizue.

- Gogoratu Elkargoak **lan poltsa bat** mantentzen duela, interesa duen elkargokide orok eman dezake izena, eta Fisioterapeuta lanpostu bat betetzeko beharra duenei ematen zaie.

- Posta elektronikoa, telefonoa edo bestelako **kontaktu-daturen** bat berriki aldatu baduzu 944020155 telefonora deituz edo cofpv@cofpv.org helbidera idatziz jakinarazi dezakezu zure fitxa eguneratu dezagun.

- Fisioterapia zentroa daukazuen elkargokideoi gogorarazten dizuegu, zentroa EFEOak onartua daukala ziurtatzen duen **Plaka** eska dezakezuela; halaber, **baimena** ere deskarga dezakezue gure Webgunean, honela, zure zentroko datuak zabaldu ahal izateko. Fitxa hau beteta, **sinatuta eta zigilatuta** igorri behar diguzue, **posta arruntaz, (dagokion Osasun Sailaren Lurralde Ordezkaritzak emandako baimenaren fotokopiarekin batera)**.

EFEOko Administrazioa



iragarki-taula

Se alquila sala diáfana de unos 32m cuadrados en un centro de fisioterapia situado en Gernika-Lumo. La sala dispone de luz artificial y dos camillas ancladas a la pared. Se sitúa en el fondo del gabinete, con acceso a WC adaptado y separada por dos puertas del resto del local, proporcionando silencio e intimidad. Ideal para actividades grupales de yoga o pilates suelo de 8-10 personas. La persona que haga uso de la sala se encargará de su limpieza pudiendo utilizar los productos y utensilios del gabinete sin coste alguno. El coste puede ser una cuantía fija de alquiler mensual o establecer un porcentaje del total de las ganancias que la actividad reporte.
Contacto: longafisioterapeutas@gmail.com

Clínica de fisioterapia, tiene disponible actualmente varias salas para fisioterapeutas autónomos, que quieran desempeñar su actividad.
La clínica cuenta con servicio de administración, limpieza y equipamiento.
La clínica está ubicada en Kabiezes Santurtzi
Contacto: info@fisiomf.com

Se alquila consulta 11,5 horas semanales en el barrio del Antiguo, a dos minutos andando de la playa de Ondarreta y a escasos metros de la calle Matia.
El local, de 30m2, dispone de material, espacio para movimiento, camilla, baño en planta baja y zona con frigorífico y microondas.
El horario disponible sería: Lunes de 9:00 a 15:30 y Miércoles de 15:00 a 20:00.
Sitio perfecto para profesional relacionado con ejercicio terapeútico, suelo pélvico, linfedema...
Para más información ponerse en contacto en el 626 350 542.

Empresa con distintos centros de trabajo en el País Vasco interesada en contactar con Centros de Fisioterapia ubicados en las siguientes poblaciones: Bilbao, Barakaldo, Getxo, Vitoria, Legutiano, Mondragon, Legazpi y Azkoitia.
Queremos crear “acuerdos de colaboración” con centros de fisioterapia ya establecidos que puedan darnos respuesta a dos situaciones que tenemos en la empresa.
Por un lado buscamos centros que puedan atender a nuestro personal en las localidades que indico a continuación. Estas personas irían derivadas por nuestro Servicio Médico ya que sólo se atendería para tratar lesiones profesionales y se facturaría a Sidenor. Las localidades donde buscamos centro serían: Bilbao, Barakaldo, Getxo, Vitoria, Legutiano, Mondragon, Legazpi y Azkoitia.
Por otro lado somos una empresa con centros de trabajo en Basauri, Vitoria, Legutiano y Azkoitia, con un total de 1569 personas trabajando en ellas.
Buscamos centros que les pueda interesar que ofertemos sus servicios de Fisioterapia a nuestra plantilla a un precio inferior al habitual. En este caso las localidades serían las mismas, aunque si hubiera algún centro en localidades adyacentes a las arriba mencionadas también podría encajar.
En caso de estar interesados contactar vía mail con olatz.aranbarri@sidenor.com

Se alquila consulta de fisioterapia(40m2) en el centro de San Sebastián a partir del mes de Agosto de 2022 en horario de Lunes y Jueves todo el día y Viernes por la tarde.
Interesados ponerse en contacto en el 652751810.

lan eskaintzak

álava araba

Kargua / Lanpostua: FISIOTERAPEUTA
Lantokia: VITORIA
Saila: FISIOTERAPIA TRAUMATOLÓGICA
Kontratu mota: INDEFINIDO
Ordutegia: CONTINUADO, BIEN DE MAÑANA O DE TARDE
Esperientzia: SE VALORARÁ
Oporretako erregimena: 23 DÍAS LABORABLES
Baldintza osagarriak: Somos un centro de Fisioterapia cuyo mayor valor es el equipo de grandes profesionales que lo forman. Por ello, siempre nos encontramos en una búsqueda activa de fisioterapeutas que cumplan con ese perfil: amplia experiencia y formación en el campo de la fisioterapia musculoesquelética, profesionalidad, compromiso, seriedad, actitud y aptitud. Si cumples el perfil y buscas un cambio, mejorar tu situación laboral, seguir creciendo como profesional o tienes nuevos proyectos, envíanos tu cv y hablamos.
Harremanetarako datuak: june@fisun.es

Kargua / Lanpostua: fisioterapeuta
Lantokia: VITORIA
Saila: fisioterapia
Kontratu mota: 6 meses de prueba y posibilidad de indefinido
Ordutegia: a convenir
Esperientzia: se valorara
Oporretako erregimena: segun convenio
Lan Hitzarmena: EGT
Harremanetarako datuak: ELENA. TLF. 678492766 O BIEN AL MAIL eurrusanz@gmail.com

bizkaia

Kargua / Lanpostua: Fisioterapeuta
Lantokia: Bilbao
Saila: Fisioterapia
Kontratu mota: Indefinido
Ordutegia: De tarde
Esperientzia: Un año
Oporretako erregimena: 30 días naturales
Lan Hitzarmena: Convenio sanitario extrahospitalario
Baldintza osagarriak: Se necesita fisioterapeuta para incorporación inmediata en clínica multidisciplinar en el centro de Bilbao. Se valoran conocimientos en terapia manual, punción seca, fisioterapia deportiva...
Harremanetarako datuak: clinicamendiola@gmail.com

Kargua / Lanpostua: Fisioterapeuta
Lantokia: Barakaldo
Saila: Fisioterapia
Kontratu mota: 6 meses + indefinido
Ordutegia: De tarde a convenir
Esperientzia: No necesaria
Oporretako erregimena: 22 días laborales al año
Baldintza osagarriak: Se valorarán conocimientos y/o formación en Pilates, punción seca y terapias manuales.
Beste gogoeta batzuk: Somos una clínica de fisioterapia de Barakaldo, con 11 años de trayectoria, donde trabajamos principalmente con pacientes con patologías traumatológicas y deportivas, tanto privados como de diferentes seguros. Actualmente buscamos un/a fisioterapeuta para trabajar 25 horas a la semana en horario de tarde, aunque existe la posibilidad de aumentar de horas la jornada según la demanda de agenda. Interesados en el puesto pueden enviar su currículum a nuestro e-mail.
Harremanetarako datuak: alvieris.fisioterapia@gmail.com

Kargua / Lanpostua: Fisioterapeuta
Lantokia: Bilbao
Saila: Clínica de fisioterapia y podologia
Kontratu mota: Media jornada
Ordutegia: Lunes a Jueves de 16:00 a 21:00
Esperientzia: Necesaria
Oporretako erregimena: 21 dias
Baldintza osagarriak: Persona con ganas de formar parte de un equipo de trabajo unido y en sintonía, aportando y colaborando activamente en cada caso.
Beste gogoeta batzuk: Se valorará formación adicional.
Harremanetarako datuak: 688739048 o info@koenasalud.es

Kargua / Lanpostua: Fisioterapeuta
Lantokia: Residencia Miraflores
Saila: Fisioterapia
Kontratu mota: Temporal
Ordutegia: 08:00 - 15:00
Esperientzia: No requerida
Oporretako erregimena: Según convenio
Lan Hitzarmena: Convenio residencias bizkaia
Harremanetarako datuak: Supervisora Vali Hortolomei equipotecnico.miraflores@domusvi.es

Kargua / Lanpostua: Fisioterapeuta
Lantokia: Leioa
Saila: Fisioterapia
Kontratu mota: Indefinido
Ordutegia: 40h/semana
Esperientzia: 1 año
Oporretako erregimena: 30 dias/año
Lan Hitzarmena: Convenio residencias bizkaia
Baldintza osagarriak: Se Fisioterapeuta para clinica privada de Leioa. Buen ambiente de trabajo y buenas condiciones. Formacion a cargo de la empresa.Se busca persona dinamica con ganas de aprender y crecer como profesional.
Harremanetarako datuak: Enviar CV a info@fisioterapialeioa.com

gipuzkoa

Kargua / Lanpostua: Fisioterapeuta
Lantokia: orio
Saila: Fisioterapia
Kontratu mota: Asalariado
Ordutegia: A negociar
Esperientzia: No es necesario
Oporretako erregimena: 30
Baldintza osagarriak: Buscamos fisioterapeuta para primero cubrir una baja maternal y luego continuar a jornada completa Imprescindible formacion en ecografia y electrolisis.
Beste gogoeta batzuk: Para comenzar a finales de agosto primeros de septiembre
Harremanetarako datuak: Enviar curriculum orekafisioterapia@hotmail.com

Kargua / Lanpostua: FISIOTERAPEUTA
Lantokia: OÑATI
Saila: FISIOTERAPIA
Kontratu mota: SUSTITUCION POR BAJA DE MATERNIDAD
Ordutegia: 8 HORAS (JORNADA CONTINUA Y PARTIDA)
Esperientzia: SE VALORARA
Oporretako erregimena: VACACIONES CORRESPONDIENTES A PERIODO TRABAJADO
Baldintza osagarriak: SE VALORARA EUSKERA. SE VALORARA CONOCIMIENTOS EN TERAPIA MANUAL Y OSTEOPATIA.
Harremanetarako datuak: eratu@euskalnet.net

Kargua / Lanpostua: FISIOTERAPEUTA
Lantokia: GIPUZKOA
Saila: SERVICIO EDUCATIVO ASPACE GIPUZKOA
Kontratu mota: EVENTUAL
Ordutegia: 9:00 A 17:00 H
Esperientzia: 1 AÑO
Oporretako erregimena: SEGÚN CONVENIO PROPIO DE EMPRESA
Lan Hitzarmena: CONVENIO PROPIO DE EMPRESA
Baldintza osagarriak: -ESTAR EN POSESIÓN DEL TÍTULO DE EUSKERA C-1
-DISPONIBILIDAD PARA DESPLAZAMIENTOS POR GIPUZKOA Y VEHÍCULO PROPIO
Beste gogoeta batzuk: -CONOCIMIENTOS DE PARÁLISIS CEREBRAL
-SE ATENDERÁ A PERSONAS USUARIAS CON UNA FRANJA DE EDAD COMPRENDIDA ENTRE LOS 0 Y LOS 21 AÑOS.
Harremanetarako datuak: MARTA FERNANDEZ (mfernandez@aspacegi.org)

POWERbreathe®
Muskulatura Inspiratorioaren Entrenamendua
Post-COVID 19 protokoloetan indikatua*
* WCTP eta SEPAR-en jarraibideak



KH2*
*Breathe-Link software-a barne PIMax neurtzen du

Medic Plus

Respiron

Shaker Classic

Produktuen informaziora sartu

Deskargatu POWERbreathe-aren hastapen eskuorria

BIOCORP® EUROPA
943 577 614 | 664 549 376
www.biocorp.es

elkargokide berriak

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo
Ofizialak ongietorria eman
nahi die elkargokide berriei
Ongi etorri!

araba

4015 Josu Etxebeste Muñoz
4063 Josefa Eglantina Vargas González
4011 Marcelo Nestor Caballero
4016 Ainhoa Mateo Vivanco
3644 Txomin Gómez Galán
4024 Xabier Rodríguez Quintana
4034 Idoia González Herrero
4035 Amaia Pinedo Centeno
4040 Aiara Bilbao Kortazar
4052 Leire Ruiz de Apodaca Audicana

bizkaia

4010 Amina Idrissi Hakkouni Bensaid
4013 Nagore Retes Martínez
4014 Isabel María Ruiz de Haro
4017 Cristina Bordón Goyes
2236 Leire Martin Gorostiza
4018 Nereida Socorro Garcés
4019 Eneritz Silva González
3193 Aitor Llamazares Alonso
3117 David Morandeira Escorza
3604 Jone Coello Calzacorta
4021 Xabier Zabalandicoechea Rementeria
4022 Blanca González Mariscal De Gante
2144 Santiago García Crespo
4023 Iñaki Amigo Rodríguez
4026 Aida Ruiz Fernández
4027 Jone Torre Sainz
4028 Andoni Cazallas Hernández
4029 Jon Aragonés Sagatui
4030 Ana Herrán Villahoz
4031 Asier Atxalandabaso De la Varga
4033 Maitane Castaño Mateo
4038 Peio Lagos Fernández de Gamboa
4036 Oscar Rivas Fang
4039 Gorka Libano Bollar
4041 Ane Portugal Pareja
4047 José Antonio Gaitán Villena
4048 Jugatx Gil Basterrechea
4059 Eneritz Mendikute Egaña

gipuzkoa

3424 Maialen Olasagasti Burgaña
0774 Gorka Aguirre Garate
4025 Ander Onofre Vazquez
4032 Nora Dominguez Iturriza
4037 Ainhoa Marin Sarasola
4046 Naia Martin Echaburu
4044 Naroa Sanz Rezola
4045 Iker Viaña Hernaez
4049 Idoia Nater Ariztimuño
4050 Julia Zamora Febrero
4051 Ane Oiartzabal Iturzaeta
4054 Ane Olaetxea Alduntzin
4055 Oihane Mugica Iparraguirre
4056 Garazi Elgarresta Isasa
4058 Aitor Oteiza Amilibia
4060 Ignacio Quintanilla Zuaznabar
4061 Jokin Aranburu Arruti
4062 Marta Maci Elosegui
4053 Eva Zabalo Sagües

beste batzuk

4020 Xabier Valmaseda Del Pino
4043 Gorka Cancelo Delgado
4057 Andrea Echepare Sistiaga
4042 Julen Urruzola Oianguren
3148 Gonzalo Indurain Bermejo
4012 Beatriz del Pilar Pajuelo Escobedo

Oharra: 2022ko otsailaren 23
eta uztailaren 13 bitartean
63 kide berri elkartu dira elkargora.
Horrenbestez, Elkargoak 3.249
kide ditu gaur egun.

Auto Sanitario VIP

La oferta más completa para el Colectivo Sanitario de Bizkaia

bizkaiko medikuen elkargoa
colegio de médicos de bizkaia
SEGURMEC
ASEGURU-ARTEKARITZA S.M.U.
CORREDURÍA DE SEGUROS S.L.U.

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco
Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

El producto de Auto más completo, en exclusiva para el personal sanitario

KIT VIP

- Valor a nuevo 3 años.
- Duplicado llaves hasta 1.000 €.
- Daños en el equipaje y objetos personales hasta 500 € por siniestro.

DAÑOS POR IMPACTO DE ANIMALES

- Daños materiales a causa de colisión por atropello a especies cinegéticas y animales de explotación ganadera o de granja.

KIT SANITARIO

- Garantía exclusiva para este producto, por lo cual se cubrirán hasta 2000 € del valor del material sanitario que la persona asegurada lleve en el vehículo, en caso de robo o daños por accidente.

ACCIDENTES PERSONALES DE QUIEN CONDUCE

- Fallecimiento.
- Invalidez permanente progresiva.
- Gastos de curación:
  - 3 M€ en centros concertados.
  - 18.000 € en centros no concertados.

Nº Registro DGSFP J-1.281 Concertado Seguro de R.C. y de Caución conforme a la Ley 26/2006

FISIOTERAPIA ELKARRIZKETAK

Colegio Oficial de Fisioterapeutas del País Vasco

Euskadiko Fisioterapeuten Elkargo Ofiziala

zoru pelvikoa

min kronikoa

onkologia pediatrikoa

Ikusi hemen

Zure osasuna zaintzen adituak